



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA

MENDI ESKOLA KIROLEAN TEKNIKARI GISA SARTZEKO AUKERAKETA-IRIZPIDEAK

Deialdiaren arrazoia:

Bizkaiko Mendizale Federazioaren babespean gidaritza lanak eta espezialitate desberdinetan ikastaroak (batez ere orientazioan eta eskaladan) aurrera eramateko monitoreen lan-poltsa bat eratu.

Zerbitzu honen prestazioa oro har larunbatetan eta igandeetan egingo da, goizez edota arratsaldez, Mendi Eskola Kiroleko programak ezarritakoa jarraituz.

Izendapena, aldi baterako izango da soilik, BMF-ak, mendi irteerak, ikastaroak... bukatu orduko baliogabetuta edo luzatuta geratuz.

Izangaien gutxienezko baldintzak:

Hautaprotetan parte hartzeko beharrezkoa izango da:

1. Adinduna izatea.
2. Federatua egotea.
3. Mendi Ertaineko Kirol Teknikari titulua izatea.
4. Euskera.
5. B motako gidabaimena izatea.

Baldintzak eskaera aurkezteko unean bete behar dira.

Eskaeren aurkezpena eta izangaien onarpena:

Hautapen-prozesu honetan parte hartzeko eskaerak **martxoaren 24tik apirilaren 12 arte** (biak barne) aurkeztu ahal izango dira:

- BMF-eko bulegoetan pertsonalki (Martín Barúa Picaza, 27 - 4. Solairua). Astearte, asteazken eta ostegunetan 19:00etatik 21:00etara.
- edo info@bmf-fvm.org helbidera bidaliz.

Epez kanpo aurkeztutako eskaerak ez-onartuak izango dira.



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA

Eskaerarekin batera hurrengo **dokumentazioa** erantsi behar izango da:

- NAN-aren kopia.
- Postua eskuratzeko eskatzen den Tituluaren kopia.
- Federazio-lizentzia kopia eguneratuta.
- Argudiatzen diren merituen erlazio eta egiaztapen dokumentalen kopia.

Izengaiak, prozesu honetan parte-hartzean, izaera pertsonaleko datu-babes kontuetan indarreko araudiaren efektuetara BMFko argitalpenetan identifikatzeko eta euren erabilera egiteko baimena automatikoki onartzen du.

Hautapen-prozesu oro zuzentzen duen publikotasun-printzipioaren ondorio bezala, ez da eskaerarik onartuko izangaiak bere datuen lagapena ukatzen badu, halaber, zuzenketarako, indargabetzerako eta oposiziorako eskubideak balio izatearen kasurako, deialdiaren organora zuzendu daitekeela informatzen zaio.

Meritu balioespena:

A. Titulu akademikoak:

- TD 2.maila goi-mendiko espezialitatea. **2** puntu
- TD 2.maila eskalada espezialitatea. **2** puntu
- TD 2.maila arroila espezialitatea. **2** puntu
- TD 3.maila goi-mendiko espezialitatea. **3** puntu
- TD 3.maila eskalada espezialitatea. **3** puntu
- Goi-Titulua edo graduatua gehi masterduna Zientzia eta Jarduera Fisikoetan eta Kiroletan. Puntu **1**.
- CAP edo gaitze didaktiko eta pedagogikoko masterra. Puntu **1**.
- Lehen sorospenen ziurtagiria **0,5** puntu
- Euskarazko B2 edo maila handiagoko titulua. Puntu **1**

B. Elkarrizketa Pertsonala: gehienez **3** puntuko puntuazioa izango du.



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA

Prozesuaren garapena:

Parte-hartzeko eskaeren aurkezpen epea bukatuta, eskaerak BMF-ko Zuzendaritza-Batzordera igorriko dira, batzordeak, deialdian eskatutako baldintzak betetzen direla frogatu eta parte-hartzaileak argudiatutako merituen balioespena ondorengo bi fasetan egingo du:

A. Lehen fasea gainditzeko, curriculum-aren balioespena, izangaiei bete behar duten gutxieneko betekizunak betetzea eskatuko zaie. Zuzendaritza-Batzordeak argudiatutako merituen balioespena igorriko du eta Federazioaren web orrian argitaratuko du.

B. Elkarrizketa pertsonala, B atala.

Ondoren, Zuzendaritza-Batzordeak, hautagaiek lortutako puntuen ordena jarraituz, emaitzak argitaratuko ditu.

Parte-hartzaileek, aipaturiko akordioaren kontra **hiru** egunen barruan helegitea aurkeztu ahal izango du, betiere aipatutako argitalpenaren hurrengo egunetik aurrera. Zuzendaritza- Batzordea izango da helegite hori ebatziko duena.

Bilbon, 2017ko martxoaren 23an.

Victor Manuel Vivar Moreno
BMF-FVM-ko Zuzendaria